

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

ZALDIHARANA ZALDITEGI GIZARTERATZAILEA. 1. ALDIA.

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udallerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

5.- Inbertsio totala: 453.096,60 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 252.576,49 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk:

- AFA (*Biziberritzen* proiektu pilotua): 136.016,12 euro
- Vital Fundazioa: 9.800 euro.

7.- Onuraduna:

HARANAKO UDALA

- Publikoa
- Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Parte-hartzaileak:

- Haranako Udala
- Ariketemo elkarte
- Done Bikendi Haranako Administrazio Batzarra

Laguntzaileak:

- HAZI Fundazioa

- IZKI Landa Garapenerako Elkartea
- Arabako Mendialdea Kuadrilla

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Harana, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

ZALDIHARANA zaldiaren inguruko ekimena da, desgaitasunen bat duten pertsonentzat prestatutako terapiak eta aterpe, aisialdi eta turismo jarduera ugari eskaintzen dituen.

ZALDIHARANAren xede nagusia honako hau da: desgaitasunik duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, mugimendu-atazak egiteko modu berritzailea eskaintzea, zaldiketa terapia gisa erabiliz, zentzumen-sistema piztea, eta beste talde batzuekiko gizarteratzea sustatzea, zaldien eta naturaren inguruan aisialdiko eta turismo aktiboko jarduerak baliatuz.

Proiektuaren izaera berritzailearen erakusgarri, gaur egun, halako terapien oso eskaintza urria dago Euskal Autonomia Erkidego osoan.

Honela defini dezakegu ZALDIHARANA proiektua: zaldiketa-terapiako jardueretan eta naturako, aisialdiko eta kirol-arloko jardueretan aurrendaria den ekintza-etxea, desgaituen gizataldearentzat eta haien senideentzat; orobat, esan behar da Zaldiaharana zabalik dagoela zaldiak eta ingurune naturala gustuko dituzten guztientzat.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

ZALDIHARANA Haranako udalerrrian dago, Arabako Mendialdeko eskualdean, 18.000 m²-ko lurzati batean, Done Bikendi biztanlegunean, Arabako lurralde historikoaren ekialdeko muturrean.

Udalerrri horren ezaugarriak ditugu biztanleria-dentsitate txikia eta zahartze-indize handia, bai eta jarduera ekonomikoen garapen eskasa ere. Hala ere, balio handiko ingurune naturala eskaintzen du. Landa-izaera nabarmen-nabarmena dauka Haranak EAEko udalerrietan eta landatartasunari txit lotutako ezaugarri sozio-demografiko eta ekonomikoak darakuski.

ZALDIHARANAK eskaintzen duen zerbitzu-eremu edo eragin-eremua Euskal Autonomia Erkidego osora hedatzen da. Gaur egun, gero eta pertsona gehiagok eskatzen dituzte laguntza-zerbitzu horiek nahiz zaldi-terapiak eta, ildo horretan, esan dezakegu Haranako udalerrriak eredu-zko azpiegitura eskaintzen duela arloan eta, zeharka, udalerriko turismoa eta jarduera ekonomikoa eta soziala bultzatzen duela.

ZALDIHARANAK gizarte-, hezkuntza-, osasun-, ekonomia- eta kultura-balioak lantzen dituen ekimen bilakatu nahi du Haranaren eta Arabako Mendialdeko eskualde osoaren inguruan, aberastasuna sortzen duten eta biztanleria finkatzen duten beste jarduerak batzuk ere sortzeko eragilearena eginda.